

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

INDUSTRIA, TRANTZISIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNA

1. GAUZATU INDUSTRIA programa	2
2. INDARTU Programa	5
3. BIDERATU BERRIA Programa.....	7
4. Klusterren Antolakunde dinamizatzailen programa	9
5. Deskarbonizazio industrialeko programa.....	12
6. HAZITEK 2024	14
7. ELKARTEK 2024	17
8. EMAITEK PLUS 2024	19
9. AZPITEK 2024	21
10. BIKAINTEK 2024	23
11. Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko programa	25
12. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko.....	29
13. Natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak	31



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

GAUZATU INDUSTRIA programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko abenduaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko 2024ko ekitaldirako laguntza itzulgarriak. Gauzatu Industria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua:

AGINDUA, 2023ko abenduaren 26koa (2023ko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305783e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 13koa (EHAA, 246. zk., 2024/12/19)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405839e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza itzulgarriak ematean datza, 120.000 euroko inbertsio onartua duten eta, aldi berean, inbertsioak hasi eta gehienez 24 hilabeteko epean enpleguak mantentzea eta/edo sortzea dakarten proiektuei.

Lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke emango diren laguntza itzulgarriak.

Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko laguntza itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko laguntza itzulgarriak

Helburua da: Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duten inbertsioak babestuz.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	Enpresa zk.	%	Aurkeztutako inbertsioa	Diruz laguntzeko moduko inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Aurkeztuak	68				
Emandakoa	56	82%	141.695.799,04	93.765.583,83	27.214.317,98
Txikiak	28	50%	60.785.730,35	36.565.779,44	11.836.503,17
Ertainak	28	50%	80.910.068,69	57.199.804,39	15.377.814,81
Atzera egindakoak	4	6%			
Ukatuak	8	12%			

Emandakoa:

	Enpresa zk.	%	Aurkeztutako inbertsioa	Diruz laguntzeko moduko inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Teknologikoak	23	41%	56.659.222,05	37.268.827,53	12.047.417,60
Txikiak	12	52%	32.221.536,35	17.335.386,77	6.067.385,37
Ertainak	11	48%	24.437.685,70	19.933.440,76	5.980.032,23
Berritzaileak	33	59%	85.036.576,99	56.496.756,30	15.166.900,38
Txikiak	16	48%	28.564.194,00	19.230.392,67	5.769.117,80
Ertainak	17	52%	56.472.382,99	37.266.363,63	9.397.782,58

56 enpresa-proiektu lagundu dira (aurreikusitako 50en % 112), 141,7 milioi euroko inbertsio eragin da (aurreikusitako 75en % 189) eta 767 lanpostu sortu dira (aurreikusitako 500en % 153). Plantillei eusteari dagokionez, % 27,56 emakumeen enpleguei dagokie, oinarri teknologikoko enpresen kasuan, % 28,83ko igoera eta enpresa berritzaileen kasuan, % 26,63ra arte jaitsi da.

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA

Programak oinarri teknologikoko enpresak eta enpresa berritzaileak sustatzen ditu; hortaz, baita garapen teknologikoa eta berrikuntza ere. EAEn dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, funtsezkoa da era honetako enpresak sortzeko. Era berean, halako elkarrekikotasun-harremana sortuko da, ezen oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaile aditu bihurtuko baitira; horrela, egokitu egingo dira eskaintza teknologikoaren zerbitzuak.

Bestalde, enplegua sortzea edo mantentzea bultzatzen du; hori dela eta, eragina du ekonomiaren parametro garrantzitsuetako batean.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	50	56
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	75	141,7
Enpleguak	500	767



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

INDARTU Programa

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2024ko martxoaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2024ko ekitaldirako, Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 5 handiagoa edo hortik gorakoa den langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egiten duten eta, beraz, gunehorietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragiten duten enpresentzako dirulaguntza-programa, eta horren oinarriak onartzen baitira. Indartu Programa 2024.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2024ko martxoaren 26koa (EHAA 2024/04/19 70 zk.):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401681e.pdf>

Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 20koa, (EHAA 2025/01/20 22 zk.):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500528e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10 (enpresa handia) edo % 15 (ETEak) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematean datza. Jarduerak ezin izango dira hasi eskabidea aurkeztu baino lehen, eta data horretatik aurrera egin beharko dira, gehienez ere hurrengo bi urte naturaletan, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera. Horrez gain, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Enpresa handiek, gutxienez, 1.500.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute, eta ETEek, gutxienez 200.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute. Aurreko paragrafoan adierazitako gutxienezko inbertsio onartura iritsi ez arren, gutxienez 25 lanpostu sortzen badituzte (enpresa handien kasuan) edota gutxienez 5 lanpostu garbi sortzen badituzte (enpresa txiki eta ertainen kasuan).
- Enpresaren baliabide propioak, diru-laguntzak kanpoan utzita, gutxienez laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25 izan beharko dute.
- Kontuan hartu beharreko enplegu-sorkuntza zein inbertsioak erakunde juridiko bakarrak egin beharko ditu, eta, enpresa-taldearen kasuan, % 100eko akzio-partaidetzarekin, zenbait produkzio-zentro badituzte, arau honetako irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroetan edo produkzio-zentroan baino ez.

Diru-laguntzek gehieneko muga izango dute; izan ere, ezin izango dira 3.000.000,00 eurotik gorakoak izan enpresako.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programaren tamainarekin duten lotura eta erabilera eta gizarte-eragina (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Onartutako proiektuen kopurua: 57

Eragindako inbertsioa: 138.181.309,38 euro

Mantendutako lanpostuak: 2.411. Onartutako lanpostuak: 269

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 19.601.051,00 euro.

57 enpresa-proiektu lagundu dira (aurreikusitako 40en % 142,5), 134,82 milioi euroko inbertsio induzitua metatzen dutenak (aurreikusitako 125en % 110,54) eta 269 lanpostuko enplegu-sorrera (aurreikusitako 300en % 89,66).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek eragina du parametro makroekonomikoetan, hobetu egiten baititu, batez ere enplegua zuzenean zein zeharka sortzean Ezkerralde Hedatuan eta urteko batez bestekoaren %5etik gorako langabezia-tasa duten beste EAEko udalerri batzuetan.

- 6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	40	68
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	125	138,18
Enpleguak	300	269



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

BIDERATU BERRIA Programa

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2017ko urriaren 17koa (EHAA 2017/10/2017 203 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705093e.shtml>

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 4koa, Industriako sailburuordearena, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2024ko deialdiaren berri ematen duena. Bideratu Berria programa. (EHAA 2024/06/12 114 zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402833e.pdf>

4.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.

Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50eraino heldu daiteke, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilita, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programaren tamainarekin duten lotura, onura eta inpaktu soziala. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 2

Onartutako proiektuak: 0

Mantendutako enplegua: 0

Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 0 euro

2024an ez da proiekturik babestu, bi kasuetan enpresek ez zituztelako betetzen laguntzen onuradun izateko beharrezko baldintzak.

**ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:**

Programa honen bidez, enpresa txiki eta ertainen beharrak ase nahi dira. Izan ere, krisiak eraginda, enpresa txiki eta ertainek benetako etorkizun baikorra dute, lehiakorrak izateko eta, horrela, bideragarritasuna berrezartzeko behar besteko indarra lortzeko.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	3	0
Finkatutako lanpostuak.	200	0

1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

Klusterren Antolakunde dinamizatzailen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Klusterrak Dinamizatzeko Erakundeentzako 2024ko ekitaldiko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua:

2024ko urtarrilaren 16ko Agindua (EHAA, 17. zk., 2024/01/23koa)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400342e.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresen lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea da, trantsizio teknologiko-digitala, ingurumenarekiko klimatikoa eta demografiko-soziala jorratuz, bai eta enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzaren ere.

Agindu honetan jasotako laguntzak itzuli ezingo diren dirulaguntzak dira eta honako laguntza-muga hauek dituzte:

- a) Nazioartekotze-prozesurako laguntza-zerbitzuak eta jarduketak: onartutako gastuen % 40, gehienez. BasqueTrade & Investment agentziarekin elkarlanean egindako proiektuak eta jarduketak izanez gero, laguntzaren gehieneko intentsitatea onartutako gastuen % 50era arte handituko da.
- b) Enpresek proiektuetan parte hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzuak (nazioartekotzean salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- c) Zaintza-, informazio-, benchmarking- eta estrategia-zerbitzuak: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- d) Hedapen-zerbitzuak, jardunaldiak, topaketak eta ekitaldiak (nazioartekoak salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- e) Foroak dinamizatzea, jarduketa-ildoak eta lankidetzaproiektuak zehazteko: onartutako gastuen % 50, gehienez.
- f) Erronka partekatuko proiektu-taldeak dinamizatzea (aurrez garatu da, DIN1ean): onartutako gastuen % 50, gehienez.
- g) Elkarteko talde teknikoaren gaitasunak garatzea: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- h) Klusterraren sustapena eta garapena, bazkideak erakartzea, komunikazioa (webguneak, buletinak eta abar): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- i) Ekintza pilotuak: onartutako gastuen % 50, gehienez.

2.- Kanpoko gastuek honako laguntza-muga hauek dituzte:

- a) Zuzeneko merkataritza-misioak: 2. eranskinaren arabera helmugako herrialderako ezarritako bidaia-poltsen zenbatekoaren % 50 gehienez ere.
- b) Alderantzizko merkataritza-misioak: misioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez ere. Misioko kideen bidaiak, egonaldiak eta mantenuak eragindako gastuetarako, laguntzaren gehieneko muga pertsona bakoitzeko honako hau da: jatorrizko herrialdeari buruzko bidaia-poltsaren zenbatekoa, 2. eranskinaren arabera.
- c) Atzerriko azokak: 2. eranskinaren arabera helmugako herrialderako ezarritako bidaia-poltsen zenbatekoaren eta standak eta dekorazioak eragindako gastuen % 50 gehienez ere.
- d) Nazioarteko sustapen- eta hedapen-elementuak: proiektu bakoitzaren % 50 gehienez ere.
- e) Klusterrarekin komunikazio-jarduerak (webguneak, buletinak eta abar), sustapena eta bazkideak erakartzea: beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez ere, 6.000,00 euroko mugarekin urteko eskabide bakoitzeko.
- f) Jardunaldiak, mintegiak eta ekitaldiak: beharrezkoak diren gastuen % 50 gehienez, urteko eskaera bakoitzeko 8.000,00 euroko mugarekin.

Laguntza-zerbitzuei eta nazioartekotze-jarduketari dagozkien kanpoko gastuen kasuan –a), b), c) eta d) apartatuetan deskribatzen dira–, 50.000,00 euroko dirulaguntza emango da gehienez ere, banaka egingo diren azoka, misio edo jarduketa bakoitzerako, eta 180.000,00 euro urteko eskabidean aurkeztutako jarduketa guztietarako.

Onuradun bakoitzak 450.000,00 euroko laguntza jaso ahal izango du gehienez.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko datuak	Garapen Jasangarriko Helburuak				
	Agenda 2030	Berrikuntza	Nazioartekotzea	Teknologia	Guztira
Diru-laguntza	150.000	950.000	1.700.000	1.068.000	3.868.000

Aurreko deialdietatik ikusi da Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen ekarpenak Eusko Jaurlaritzarenak baino erritmo handiagoan hazi direla. Halaber, 2024an, Klusterraren Erakunde Dinamizatzaile eta erakunde bakoitzak proposatutako urteko Klusterraren Jarduera Planak (NPB) osatzen dituzten ekintzen hautagarritasuna ebaluatu ondoren, finantzaketa-beharra 4.967.458 eurokoa izan zen, 2023arekin alderatuta % 17,57 gehiago, eta Sailak emandako dirulaguntza 3.868.000 eurokoa izan zen.



ERABILGARRITASUNA ETA GIZARTE-ERAGINA

Programa honek euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen arloetako lankidetzaren eta lanaren bidez.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako enpresen kopurua.		
Erreferentziako kluster-eremuen kopurua	16	16
Erakunde dinamizatzailer aktiboen kopurua	26	26
Elkartutako enpresen (ETEak) kopurua	1.917 (1631)	2.121 (1802)
Nazioartekotzeko lankidetzaz jardueren kopurua	121	195
Berrikuntzarako eta teknologiarako lankidetzaz jarduten eta jarduketan kopurua	238	272
KEBetako barne-taldearen dedikazioa (orduak)	137.000	188.070
Jarduketan finantzaketa pribatuaren balioa (KEBetako kideak) (euroak)	5.600.000	5.835.896



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

Deskarbonizazio industrialeko programa

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2024ko martxoaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2024ko ekitaldirako dirulaguntzen programa, Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta, deskarbonizazioaren bidez, beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzat. «Deskarbonizazio Industrialeko Programa».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2024ko martxoaren 26koa (EHAA 2024/04/10 71 zk.):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401711e.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa hori ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: 2022-2027rako eskualde-helburuko estatu-laguntzei buruzko jarraibideak (EO, C 153, 2021-04-29koa), 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (EO, L 187, 2014-06-26koa), ingurumena babesteko laguntzen atalaren 36. eta 38. artikuluen azken aldaketan (2023ko martxoa) ezarritakoaren arabera, eta Europako Batzordeak Estaturako 2022-2027 eskualde-laguntzen mapa onartzea (SA.100859, 2022-03-17ko Erabakia).

Europako erregelamenduaren bertsio berriak aukera ematen du, halaber, laguntza-intentsitatea handitzeko enpresa txiki eta ertainen kasuan, edo laguntzaren xede den inbertsioa Ezkerralde Zabalduaren Eremuan kokatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu behartsuen konfigurazio berriaren arabera (2022-2027).

Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez ematen dira, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta ehuneko hauek izango dituzte:

- laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 20.
- Laguntzaren intentsitatea 5 puntu handituko da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan, eta 10 puntu enpresa txikiei emandako laguntzen kasuan.
- Laguntzaren intentsitatea ehuneko bi puntu eta erdi (% 2,5) handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerralde Zabaldun kokatutako inbertsioen kasuan.

Diru-laguntzek 1.500.000,00 euroko gehieneko muga izango dute enpresa eta/edo enpresa-talde bakoitzeko.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programaren tamainarekin duten lotura eta erabilera eta gizarte-eragina (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Eskabide kopurua: 68

Onartutako proiektuak: 58

Eragindako inbertsioa: 91.877.521,07 euro

Mantendutako lanpostuak: 23.127 pertsona

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena: 17.621.198,66 euro.

2024ko bigarren deialdiko datuek nabarmen gainditzen dituzte 2023rako ezarritako hasierako aurreikuspenak. Izan ere, aurreko deialdi bakar bateko esperientzia baino ez dugu, eta horrek nahiko kopuru txikiak sortu zituen.

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek azpimarratzen du karbono gutxiko ekonomia baterantz gogor aurrera egiteko konpromisoa, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapenerako aukera gisa, nazioartean adostutako klimaren neutraltasun-helburuak betetzeko konpromisoa hartuz, eta batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigraduak gainditzea eta 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izatea saihesten lagunduz.

- 6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	*Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	10	58
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	50	91,88
Enpleguak	500	23.127
Emakumeak	100	4.591
Gizonak	400	18.536



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HAZITEK 2024

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, HAZITEK programa arautzen duena (I+G enpresarialari laguntzeko programa) eta deialdia egiten duena diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko I. faserako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, HAZITEK programa arautzen duena (I+G enpresarialari laguntzeko programa) eta deialdia egiten duena diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko I. faserako.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400254e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, HAZITEK Programaren esparruan (2024ko deialdia) diruz lagun daitezkeen proiektuak eskatzeko I. fasea ebazten duena.

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 16koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, HAZITEK enpresa-arloko I+Gri laguntzeko programaren 2024ko ekitaldiko II. faserako deialdia argitara ematen duena.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/07/2403623e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 2koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, HAZITEK Programaren I. fasean onartutako proiektuetarako laguntzak onartzeko II. fasea – 2024ko deialdia – ebazten duena.

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_hazitek_fase_2_2024/es_def/adjuntos/R-esolucion-Concesion-HAZITEK-2024-Fase-II_signed.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean (Euskadi 2030) bildutako espezializazio-esparruetan industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektuak, lehiakorrak zein estrategikoak, egiten laguntzea.

Programa honek bi proiektu-tipologia babesten ditu:

1.- Izaera lehiakorreko ikerketa- eta garapen-proiektuak

Lehiakorrak diren I+Gko proiektutzat hartuko dira produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzera zuzendutako Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko proiektuak, edo lehendik daudenak nabarmen hobetzea ahalbidetzen dutenak.

Izaera lehiakorreko I+G proiektuetarako laguntzak eskuratu nahi dituzten proiektuek I+G+b arloko jardueren multzo koherente bat izan beharko dute, argi eta garbi produktu, prozesu edo zerbitzu



originalak eta lehendik daudenak baino handiagoak garatzera bideratuak, merkatuaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzuteko.

Dauden produktuak/prozesuak hobetzera bideratutako proiektuak edo garatutako produktuak/prozesuak produktu/prozesu berritzat jotzeko berritasun-mailarik ez dutenak ez dira «produktu/prozesu berriak garatzeko proiektutzat» hartuko. Dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira produktuen, ekoizpen-lerro eta -prozesuen, dauden zerbitzuen eta bestelako eragiketa arrunten ohiko edo aldizkako aldaketa arruntak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekarri.

2.- Ikerketa industrialeko eta garapen esperimental estrategikoko proiektuak

Diruz lagundu ahal izango dira Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren Espezializazio Eremuetan jasotako industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektuak, baldin eta Ikerketa eta Garapen Teknologiko eta Berrikuntzan lankidetza publiko-pribatua sustatzen badute, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian trakzio-eragina izan dezaten eta ETEen esku-hartzea eta Horizonte Europa Programarako sarbidea errazten badute.

Diruz lagunduko dira Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan dauden espezializazio-esparruetako industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektuei dagozkien I+G+b jarduerak, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobeak lortzeko ezagutza erabilgarri berriak sortzera bideratuta daudenak, bai eta teknologia estrategikoko berriak integratzera eta patente berriak sortzera. Eta hori guztia enplegua sortzera eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatzera eta enpresa-lehiakortasuna hobetzera bideratuta dago.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	<u>Lagundutako proiektuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Dirulaguntza</u>
Estrategikoak	31	120,6 mill. €	49,1 mill. €
Lehiakorrak	623	144,8 mill. €	42,1 mill. €
GUZTIRA	654	265,4 mill. €	91,2 mill. €

2024ko deialdia 91,2 milioi eurokoa izan zela kontuan hartuta, aurrekontuaren gauzatze-maila % 98,6koa da.

Hazitek lehiakorren ildoaren erabilgarritasuna enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzean datza, hazkunde ekonomikoa areagotzeko eta, aldi berean, iraunkortasunaren eskakizunak eta gizarte dinamiko, konplexu eta global baten behar berriek unean-unean eskatzen dituzten eskaera zientifiko-teknologikoei baliozko erantzuna emateko.

Hazitek lerro estrategikoaren erabilgarritasuna honetan datza: lankidetza publiko-pribatua garatzea, jarduera estrategikoko arloetan ikerketa-ildoak eta Euskadiko ekonomiarentzako trakzio-efektua egiten



dituzten enpresa-partzuergoak sustatzea, eta, aldi berean, zientzia-teknologia-enpresa sistemako eragile guztien artean I+G+Bko lankidetzaren kultura zabaltzea.

Eragin soziala: enpresen lehiakortasun handiagoaren ondoriozko hazkunde ekonomikoa, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzean, oinarri zientifiko-teknologikoko patente eta enpresa berriak sortzean, eta hori guztia enplegua sortzeko eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektu estrategiko berezien kopurua	2	3
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua	34	31
Proiektu estrategikoetan lagundutako enpresen kopurua	180	184
Lagundutako produktuak garatzeko proiektuen kopurua	675	623
Produktuak garatzeko proiektuetan lagundutako enpresen kopurua	690	666
Lagundutako lankidetzako lehiakortasun-proiektuen kopurua	240	223
ZTBESeko eragileekin abian jarritako lehiakortasun-proiektuen kopurua	515	488

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ELKARTEK 2024

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko abenduaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen programa (ELKARTEK Programa – 2024).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko abenduaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen programa (ELKARTEK Programa – 2024).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400123e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 18koa, Industria sailburuordearena, ELKARTEK programaren barruan 2024ko deialdirako eskabideak ebazten dituen.

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/anuncio_elkartek_2024/es_def/adjuntos/ELKARTEK-2024-ebazpena-fda.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta dauden Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Erakundeek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planean bildutako espezializazio-esparruetan elkarlaneko ikerketa-proiektuak egiten laguntzen da, funtsezkoa zein industrial.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

<u>Lagundutako proiektuak</u>	<u>Zenb.</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Dirulaguntza</u>
Elkarlaneko funtsezko ikerketa-proiektuak	40	43,7 mill. €	41,7 mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	11	3,9 mill. €	1,9 mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	6	0,7 mill. €	0,4 mill. €
GUZTIRA	57	48,3 mill. €	44 mill. €

Kontuan hartuta 2024ko deialdia 44 milioi eurokoa izan zela, aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa da.

Proiektuak bat datoz Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeko espezializazio-eremuekin.

Programa honen erabilgarritasuna ZTBP 2030en barruan dauden espezializazio-esparruetan ezagutza lortzean datza,

Euskal Autonomia Erkidegorako interes estrategikokoak baitira.

Eragin soziala: Garapenerako ezagutza estrategikoa sortzea, enpresen lehiakortasuna sustatzea, etorkizunean enpresa-sektore berriak sortzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Lagundutako arlo estrategikoetako elkarlaneko funtsezko ikerketa-proiektuen kopurua	35	40
Industria-potentzial handia duten eta laguntza jaso duten ikerketa-proiektuen kopurua	15	11
Lagundutako interes bereziko ekintzen kopurua	8	6
Lagundutako agenteen kopurua	65	69

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EMAITEK PLUS 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 4koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita EMAITEK PLUS laguntza-programaren 2024ko ekitaldiko deialdia.

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, EMAITEK PLUS Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, EMAITEK PLUS Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, EMAITEK PLUS laguntzen programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 27koa, Industria sailburuordearena, EMAITEK PLUS programaren barruan 2024ko deialdirako eskabideak ebazten dituen.

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_emaitek_plus_2024/es_def/adjuntos/Resolucion-concesion-EMAITEK-PLUS-2024-firma.pdf

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 4koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita EMAITEK PLUS laguntza-programaren 2024ko ekitaldiko deialdia.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402834e.pdf>

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, EMAITEK PLUS Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903681e.pdf>

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, EMAITEK PLUS Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704120e.pdf>

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, EMAITEK PLUS laguntzen programa arautzen duena.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroen eta IKZ Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko laguntza publikoak, finantzaketa esleitzuz beren jardueraren emaitzak maila globalean ebaluatu eta aztertuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldirako deialdia.

Emandako dirulaguntza: 73.000.000 euro

Kontuan hartuta 2024ko deialdia 73 milioi eurokoa izan zela, aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa da.

11 Zentro Teknologikoren eta IKZen Ikerkuntza Kooperatiboko 4 Zentroren jarduera ez-ekonomikoa babestu da, eta, era berean, Zentro Teknologikoen agente-aula betetzeko 22 hobekuntza-ekintza eta IKZen agente-aula betetzeko 15 hobekuntza-ekintza lagundu dira. TZen batez besteko betetze-maila 2023ko % 93,33tik 2024ko % 93,5era igaro da, eta IKZen batez besteko betetze-maila 2023ko % 89,63tik 2024ko % 91,10era.

Programa honen erabilgarritasuna da Teknologia Zentroei laguntzea finantzaketa esleitzuz, beren jardueraren emaitzak maila globalean ebaluatuz eta aztertuz, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburuak dituzten adierazleen agente-aula baten bidez.

Eragin soziala: Eragileen ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak enpresa-sektorerara transferitzea, EAEko garapen iraunkorrerako enpresen ekonomia sustatzen eta lehiakortasuna sustatzen laguntzen baitute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako zentroen kopurua	15	15
Argitalpen zientifikoen kopurua	1.400	1.355
Eskatutako patenteen kopurua	130	132
Azken 5 urteetan sortutako OTEBetako fakturazioa	35.000 mil. euros	18.846 mil. euro

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

AZPITEK 2024

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Ikerketa Azpiegiturak Eskuratzeko Laguntzen AZPITEK 2024 Programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Ikerketa Azpiegiturak Eskuratzeko Laguntzen AZPITEK 2024 Programa.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402817e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 14koa, Industria sailburuordearena, 2024ko AZPITEK deialdiaren esparruan eskabideak ebazten dituen.

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_azpitek_2024/eu_def/adjuntos/Resolucion_con_ANEXO.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentro teknologiko multifokalizatuek eta ikerketa kooperatiboko zentroek I+G+b garatzeko azpiegitura zientifiko-teknologikoak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratu, instalatu eta eguneratzen eta horien emaitzak balioztatzen eta frogatzen laguntzeko laguntza-programa. Hori guztia emaitzen kalitatea eta emaitzen inpaktu zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratuta dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

<u>Lagundutako proiektuak</u>	<u>Zenb.</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Dirulaguntza</u>
Azpiegitura zientifiko-teknologikoen proiektuak	18	10,3 mill. €	9,9 mill. €

Kontuan hartuta 2024ko deialdia 9,9 mill. eurokoa izan zela, aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa da.



Euskadiren erronka sozioekonomikoei zientziatik eta teknologiatik erantzuten jarraitzeko, beharrezkoa da azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak izatea Euskadin eragina duten 3 trantsizioei ekiteko: trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-kli matikoa eta trantsizio sozial eta sanitarioa.

Azpiegitura zientifiko-teknologikoak berrikuntzan oinarritzen diren I+G+Bko ekosistemen eta balio-kateen bizkarrezurra dira. Hala, IC-Tek teknologia garatzen eta elkarrekin sortzen laguntzen dute, kontzeptuaren probatik eta laborategietan baliozkotzetik hasi eta industria-ingurunean prototipoak frogatzeraino, teknologia hartzen dela bermatzeko, Euskadin ondoriozko inpaktu sozioekonomikoarekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	20	18

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BIKAINTEK 2024

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko otsailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak egiteko laguntzak –BIKAINTEK programa–.

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 13koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak garatzeko laguntzen 2024ko ekitaldiko deialdia. BIKAINTEK programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko otsailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak egiteko laguntzak –BIKAINTEK programa–.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301130e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 13koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak garatzeko laguntzen 2024ko ekitaldiko deialdia. BIKAINTEK programa.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400858e.pdf>

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 6koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2024ko otsailaren 13ko Ebazpenak iragarritako laguntzen entitate onuradunen zerrenda (BIKAINTEK 2024 programa).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500795e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko urriaren 18koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, doktoregaiak kontratatuz I+G proiektuak garatzeko laguntzen deialdia ebazten duena (BIKAINTEK 2024 programa).

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_2242241/es_def/adjuntos/B1-RESOLUCION-BIKAINTEK-2024.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da I+G proiektuak garatzen laguntzea, euskal produkzio-sarearen lehiakortasuna handitzeko, talentua sartzeari esker, doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatuz eta/edo industria-doktoretzak eginez, bai enpresetan, bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zenbait eragiletan (Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak, Zentro Teknologikoak eta enpresetako I+G unitateak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren aurrekontu osoa 5.670.000 eurokoa izan zen: 1.402.500 euroko ordainketa-kreditua 2024ko ekitaldirako, 2.085.000 eurokoa 2025erako, 1.432.500 eurokoa 2026rako eta 750.000 eurokoa 2027rako. Aurkeztutako eskabideak 69 izan ziren; horietatik 42 doktoreen kontratazio-lerrora aurkeztu ziren, eta 27 doktorego industrialen lerrora. Guztira 32 pertsona kontratatu ziren, horietatik 15 (% 47) emakumeak eta 17 (% 53) gizonak.

Aurrekontuaren gauzapena % 58koa izan da.

Eragin soziala: doktoreak kontratatzeke ildoan, enpresen talentu- eta lehiakortasun-maila handitzen da, beren prestakuntzan bereziki garatutako trebetasunak dituzten pertsonak enpresa-ehunean sartuz. Bestalde, doktorego-ikasketak enpresetan edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile jakin batzuetan egingo dituzten pertsonak kontratatzeke ildoaren bidez, talentua atxiki nahi da, eta doktoregoko ikasleak EAEko enpresa-inguruneetan I+G proiektuak garatzeko baldintzetan kokatu, eta, aldi berean, euskal industria-sarearen lehiakortasuna areagotzen lagundu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako industria-doktoregoen kopurua	32	22
Kontratututako doktoreen kopurua	48	20

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko programa

2.- Arau erregulatzailea

- AGINDUA, 2023ko abenduaren 19koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2024ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia egiten duena.
- 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Arau arautzailea, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA hiperesteka)

Deialdiaren argitalpenaren esteka:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/12/2305763a.shtml>

Deialdiaren ebazpena argitaratzeko esteka:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1026409/web01-ejeduki/es/>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Programaren helburua da enpresei dirulaguntzak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten.

Laguntzen diren inbertsio-lerroak honako hauek dira:

- a) Batasunaren araurik ezean, ingurumena babesteko Batasunaren arauetatik harago joatea edo ingurumenaren babes-maila handitzea ahalbidetzen duten inbertsioetarako laguntzak.
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara aldezturik egokitze laguntzak.
- c) Ingurumen-azterketetarako laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsiorako laguntzak, honako baldintza metagarri hauek betetzen badira:
 - Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murriztera bideratzen da.
 - Beste egoera batzuetan, tratatutako material birziklatuak edo berrerabiliak ezabatu egingo lirateke, edo ingurumena gutxiago errespetatuz tratatuko lirateke.
 - Laguntzek ez dituzte zeharka askatuko kutsaduraz arduratzen diren pertsonak Batasuneko legeriaren arabera haiek jasan behar duten karga batetik edo enpresa-kostu normaltzat hartu behar den karga batetik.
 - Inbertsioaren ondorio bakarra ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea, material horien bilketa handitu gabe.



- Inbertsioa teknikaren egungo egoeratik harago joango da.

Atal honetan ez bezala, onuradunaren hondakinak kudeatzeko diren laguntzak ebaluatzeko, a) lerroan jasotako laguntzei aplikatu beharreko irizpide orokorrak hartuko dira oinarri.

e) Lur kutsatuak saneatzeko laguntzak, baldin eta ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea edo ezin bada legez hartu birgaitzea finantzatzeko arduraduntzat, «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioaren arabera.

f) ETEentzako laguntzak, ingurumenaren arloko aholkularitza-zerbitzuetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala

Laguntza-araubide honen 2024. deialdian, prozedura arruntaren bidez eta prozedura sinplifikatuaren bidez esleitu zitezkeen proiektuetarako laguntzak ematea aurreikusten zen.

Deialdi horretan 118 eskabide jaso ziren, 55 ohiko prozeduran eta 63 prozedura erraztuan. 118 eskaeretatik, 8k atzera egin zuten. 16 prozedura-aldaketa izan ziren: 3 eskaera prozedura sinplifikatutik arruntera igaro ziren, eta 13 eskaera prozedura arruntetik sinplifikatura.

Bi prozeduretara aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak 89 proiektu diruz laguntzea ebatzi zuen.

Enpresa onuradunei dagokienez, 2024ko deialdian 69 enpresari eman zaie dirulaguntza, eta horietatik 12k proiektu bat baino gehiago dituzte. Nabarmentzekoa da enpresa horien % 63 ETEak direla.

Laguntza ekonomiko horien gaikako gutxi gorabeherako banaketari dagokionez:

- Prozedura arruntaren modalitatean, guztizko zenbatekoaren % 47,92 erabiliko da hondakinak minimizatzeko edo ezabatzeko hamazazpi (17) proiektu laguntzeko; % 37,71 atmosferaren kutsadura minimizatzeko hamabi (12) proiektu diruz laguntzeko erabiliko da, % 4,25 kutsadura akustikoa murrizteko proiektu bat (1) egiteko; % 3,84 kutsatutako lurak saneatzeko bi (2) proiektu laguntzeko; % 3,54 ingurumen-arloko lau (4) azterlan egiteko; eta, azkenik, % 2,73 uren kutsaduraren aurka borrokatzeko edo baliabide hori aprobetxatzeko proiektu bat (1) egiteko.

- Era berean, prozedura sinplifikatuaren barruan diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren % 89,74k balioko du hondakinak minimizatzeko edo ezabatzeko hogeita bederatzi (29) proiektu diruz laguntzeko, % 3,81ek kutsadura atmosferikoa minimizatzeko bost (5) proiektu laguntzeko, % 3,48k bederatzi (9) ingurumen-azterlan egiteko, % 1,79k uren kutsaduraren aurka borrokatzeko edo baliabide hori aprobetxatzeko hiru (3) proiektu diruz laguntzeko, eta, azkenik, % 1,17k ETEentzako ingurumen-arloko aholkularitza-zerbitzuen sei (6) proiektu laguntzeko.

Lortutako emaitzei eta erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokienez, dirulaguntzen aginduetarako aurrekontu-memorian erabilitako adierazle komuna laguntzen onuradun diren proiektuen kopurua da. Beraz, jarraian, Dirulaguntzen Aginduaren bilakaera parametro honetan deskribatzen da, inbertsioen zenbatekoaren parametroetan eta dirulaguntzaren azken inbertsioaren ehunekoaren parametroetan ez ezik.



Prozedura	Aurrekontu-zuzkidura	Eskabide kop.	Proiektu onuradunen kop.	Eskatutako zenbateko	Emandako guztizko zenbatekoa	Ehuneko
PROT	3.050.000 €	55	37	15.309.664,68	3.056.239,59	19,96%
PROTS	1.950.000 €	63	52	4.354.497,34	1.663.965,37	38,21%
TOTAL	5.000.000 €	118	89	19.664.162,02	4.720.204,96	24,00%

2002tik gaur arte 2.501 proiektu lagundu dira diruz, guztira 62,7 milioi euro, dirulaguntza programa honi esker.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

2024ko dirulaguntzen deialdiaren emaitzei dagokienez, diruz lagundutako proiektuei dagokienez aurreikusten den inpaktu potentzialari buruzko datuak baino ez daude; izan ere, 202/2015 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, gauzatze-epea dirulaguntzaren xede den proiektuan zehaztutakoa izango da, eta ezin izango du 2 urte eta 6 hilabeteko gehieneko epea gainditu, urteko deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta, beraz, jarduera horiek 2026ko ekainaren 30ean amaitu daitezke.

Deialdi honetan diruz lagundutako proiektuak ezartzeak ekarriko dituen ingurumen-onuren kuantifikazioari dagokionez, hona hemen urteko zifrarik esanguratsuenak:

- Atmosferara isurtzen diren partikula eta gas kutsatzaileen urteko murrizketa 15,54 tonakoa izango da partikulen kasuan (isurketa barreiatuak), eta 227,65 tonakoa kutsagarriak izan daitezkeen gainerako konposatu gaseosoen kasuan, honela banatuta: 83,32 tona KOH, 73,95 tona CO₂, 41,18 tona CO, 20,5 tona NO_x, 5,33 tona SO₂ eta 3,17 tona KOG.
- 19.017,94 tona hondakin arriskutsu gutxiago sortzea, eta 285.310,00 tona industria-hondakin ez-arriskutsu gutxiago sortzea.
- 910 m²-ko zuntz-zementuzko estalkia kentzea (proiektu bakar batean).
- 1.349 hektarea lurzoru kutsatu berreskuratzea.

Datu horien arabera, Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako adierazleak betetzeak emaitza hauek ematen ditu:

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak	2024ko deialdian espero diren emaitzak
Enpresei teknologia eta prozesu berritzaileak sustatzeko diruz lagundutako proiektuak.	89
Diruz lagundutako enpresak	69



Enpresei emandako laguntzetatik eratorritako inbertsioen zenbatekoa.	19.664.162,02 €
Dirulaguntzaren ehunekoa azken inbertsioarekiko	% 24
Emisioak murriztea	15,54 tona partikulen kasuan (isuri barreiatuak), eta 227,65 tona kutsagarriak izan daitezkeen gainerako gas-konposatuen kasuan, honela banatuta: 83,32 tona KOH, 73,95 tona CO ₂ , 41,18 tona CO, 20,5 tona NO _x , 5,33 tona SO ₂ eta 3,17 tona KOG
Hondakinak murriztea	19.017,94 tona hondakin arriskutsu eta 285.310,00 tona industria-hondakin ez-arriskutsu
Hondakinak birziklatzea edo errebalorizatzea	172.531 tona industria-hondakin ez-arriskutsu

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 5koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta deialdia egiten baita 2023-2024 ikasturterako..

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua:

2023ko irailaren 5eko Agindua (EHAA 174 ZK. 2023ko irailaren 12a)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304218e.pdf>

Ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 11koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, zeinaren bitartez ebazten baita dirulaguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko. (2024ko ekainaren 27ko EHAA, 126. zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403091e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-prozeduraren bidez, 2023-2024 ikasturtean Eskolako Agenda 2030 (EA2030) eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 (LHA2030) programak garatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

473 eskabide aurkeztu dira; horietatik, 6k atzera egin zuten eta 465ek balorazio positiboa jaso zuten, eta 2 ezetsi egin ziren, 2023ko irailaren 5eko Aginduaren 5. artikuluko 1. puntua ez betetzeagatik. Gainera, ikastetxe batek uko egin zion gerora, eta, beraz, guztira 462 ikastetxek hartu dute parte programan. Kopuru hori 2022-2023ko deialdiarekin alderatuta % 2,73 gutxiago da.

Hasiera batean, 473 ikastetxeak aurkeztuta, 229.525 ikaslek parte hartuko zutela kalkulatu zen. Hala ere, parte hartu duten ikasleak 227.705 izan dira, hau da, % 3,80 gutxiago 2022-2023 deialdiarekin alderatuta. "Eskola jasangarriak" aitortpena duten ikastetxeen kopuruari dagokionez, 2023-2024 ikasturtearen hasieran EAEko 113 ikastetxek zuten bereizketa hori. Ikasturtean zehar, 13 ikastetxe gehiagok lortu dute aintzatespen hori, eta guztira 126 ikastetxe aintzatetsi dira.



Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, guztira 1.250.000 € bideratu dira laguntza-lerro horretara, bi ordainketatan banatuta. Lehenengo ordainketa, dirulaguntza eman zenean egin zena, 1.000.000 € izan zen (guztizkoaren % 80). Zenbateko horretatik, justifikaziorik ezak eragindako itzulketen ondoren, 981.965,36 € gauzatu dira. Bigarren ordainketa, gainerako % 20ari dagokiona (250.000 €), dirulaguntza justifikatu ondoren egin zen. Justifikaziorik ezagatik egindako baliogabetzeen eta ordainketa batzuk partzialki gauzatzearen ondoren, gauzatutako azken zenbatekoa 231.448,38 € da.

Aipatzekoa da aurrekontua gutxiago gauzatze horretan eragina izan zezakeen faktoreetako bat dirulaguntza emateko ebazpena berandu ateratzea izan dela. Horrek ziurgabetasuna eragin du ikastetxe batzuetan, laguntza jasoko ote zuten ez zekitenez, gasturik ez egitea edo gauzatzea mugatzea erabaki baitzuten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Sinadura- datako emaitza</u>
Eskolako Agenda 2030 programa garatu duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen kopurua.	450	462
Eskolako Agenda 2030 programan dauden unibertsitatez kanpoko ikasleen ehunekoa.	%70	% 87,72
Eskola Agenda 2030 programan dauden Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.	%10	% 11,69
"Eskola jasangarri" gisa aitortutako ikastetxeen kopurua.	85	126

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena, natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsonei, elkarteei, fundazioei eta enpresei 2024rako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Arau arautzailea, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA esteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402086e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405623e.pdf>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburpena eta helburuak.

Biodibertsitateari buruzko EBren Estrategiak, hemendik 2030era bitartean: natura gure bizitzetara itzultzea COM (2020) 380 final izenekoak, 3.3.4 atalean, biodibertsitatearen galeraren aurkako borroka irizpide zientifiko sendotan oinarritu behar duen ezagutza, hezkuntza eta gaitasunak hobetzeari buruz dio, eta ikerketan, berrikuntzan eta ezagutza-trukean inbertitzea funtsezkoa dela daturik onenak lortzeko eta irtenbiderik onenak garatzeko. Jarraipenari eta informazioari buruzko alderdiak hobetzeko neurri zehatzak aurreikusten ditu, biodibertsitateari buruzko epe luzeko ikerketa-plan estrategiko gisa, eta biodibertsitateari buruzko Ezagutza Zentro berri bat sortzea.

2016an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2030 Biodibertsitate Estrategiaren 4 helburuetako bat da naturaren ezagutza eta kultura sustatzea, eta, horretarako, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema bultzatzea eta indartzea, ekintza nagusietako bat den aldetik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala

Guztira 9 eskabide aurkeztu dira, guztiak epearen barruan. Eskabideak baloratzeko prozesu bat egin zen, Aginduaren 14. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki.

Balorazioa egin ondoren, dirulaguntzen zenbatekoa zehaztu zen, ezarritako baldintzen arabera, harik eta diruz lagun zitezkeen gastuen kontzeptuen arabera aurrekontu-zuzkidura konprometitu arte.

Programaren aurrekontua honako hau da: 180.000,00 €

4 ikerketa-proiektu lagundu dira diruz.

Lurralde historikoen arabera banaketari dagokionez, Araban 2 proiektu lagundu dira diruz (diruz lagundutako proiektuen % 50), beste proiektu bat Araban eta Gipuzkoan garatu da (% 25) eta, azkenik, diruz lagundutako laugarren proiektua Araban eta Bizkaian garatu da (% 25). Aurrekontuaren % 73,22 Arabara joan da, % 17,31 Bizkaira eta % 9,47 Gipuzkoara.



Gaika, proiektu gehienak flora eta fauna eta basa-flora kontserbatzearekin lotutako hainbat alderditan zentratzen dira, eta ohikoagoak dira faunarekin lotutakoak.

Ikerketa-proiektuak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa da. Izan ere, dagokion agindua izapidetu behar da, eta, horrela, faunaren eta floraren jarduera-aldi oso bat bermatzen da, udaberri-uda-udazkena. Ikerketa-gai batzuek jarduera-aldi oso bat behar dute, bi ez direnean, landa-datuak hartu direla egiaztatzeko.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza proiektuen kopurua.	9	4